



AURKIBIDEA

A.	Zuzendaritzaren gutuna
B.	2014. urtearen laburpena
C.	Memoria egiteko metodoa
1.	ELIKA fundazioaren izaera <ul style="list-style-type: none">a. RSC politikab. Gobernu-organoak.c. Aliantzak eta interes-taldeakd. Lan-arloak
2.	Kultura estrategikoa <ul style="list-style-type: none">a. Misioab. Ikuspegiac. Baloreakd. Helburu estrategikoak
3.	Dimentsio ekonomikoa <ul style="list-style-type: none">a. Balioa handitzeab. Balantzea eta kontuak
4.	Gizarte-dimentsioa <ul style="list-style-type: none">a. Talde profesionalab. Gizartea eta ingurugiroa
5.	Ingurumen-dimentsioa <ul style="list-style-type: none">a. Ingurumenarekiko konpromisoab. Ingurumen-zeregina
6.	Etorkizuneko erronkak
7.	GRI edukiaren taula

A. ZUZENDARITZAREN GUTUNA

2014. urtean, ELIKA Fundazioak pauso sendoa eman du bere kudeaketaren bikaintasun-eredua finkatzeko. Azken hamarkadan eginiko lanaren ondorioz, abenduaren 15ean kudeaketaren arloko bikaintasunaren Zilarrezko Q-aren aitortpena jaso zuen, EUSKALIT-KUDEAKETA AURRERATUAren Ebaluazio Klubak eginiko kanpoko ebaluazioaren ondoren. Hala, Eusko Jaurlaritzak aitortu egiten du mugarri hori lortzeko eginiko ahalegina, eta ELIKAk pertsonok animatzen gaitu kudeaketa hobetzeko hasitako bidean jarraitzera.

Halaber, kudeaketaren aitortpen globala dakar Zilarrezko Q-ak, eta fundazioak gauzatzen duen gizarte-erantzukizuneko politikari berariazko babesa ematen dio. Hala definitzen da “gizarte” deitzen dugunaren irismena, aintzat hartuta gizarteari eman nahi zaiola balioa.

Sortzeko arrazoiengatik eta duen zereginagatik, ELIKA Eusko Jaurlaritzaren eskutik jaio zen, Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzeko; izan ere, alderdi hori oso interesgarria da kontsumitzaileentzat eta gizartearentzat oro har. Hori dela eta, gure interes-taldee (administrazioa, agintaritza eskudunak eta elikakateko kideak) begira sortutako informazio teknikoak eta dibulгатiboak gizarteari ere begiratzen dio. Halaber, zeharkakotasunez, ingurumena errespetatzen dugu, prestakuntza eta komunikazio elebiduna bultzatzen dugu (euskara eta gaztelania), eta erakunde irisgarriaren eta hurbilaren irudia ematen diogu euskal gizarteari oro har, kalitateko lana eginez, horrek balioa eta babesa ematen baitie Elikagaien Segurtasunaren inguruan dauden egiturei.

Nolanahi ere den, duen zereginetik eta legea betetzetik harago, ELIKAk definitu egin du nor den “gizartea”, gizarte-konpromisoko talde gisa. ELIKAk gizarte-erantzukizuneko estrategia sortzen du, eta definitu egiten ditu hala jarduteko oinarritzko lerroak nola gizarte-konpromisoko proiektuak. Zenbait ekimen nabarmentzen ditugu horren inguruan:

Kausa solidarioetan parte hartzen dugu eta babesa ematen diegu (tapoiak bilduz, materialak dohaintzan emanez, Elikagaien Bankuari lagunduz, etab.).

Ingurumena zaintzen eta errespetatzen dugu, birziklatuta, hondakinak banatuta, erabiltzen jarrai daitezkeen materialak dohaintzan emanda, etab.

Erakunde gisa, FOARSEko (Enpresen Erantzukizunerako Araba Foroa) eta Q-EPEAko kide gara.

Berdintasuna eta GTDa sustatzen ditugu (gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako erakunde publikoen sareko kide gara).

Euskara erabiltzea sustatzen dugu.

Horrenbestez, ELIKAk gizarte-erantzukizunaren esparruan eginiko lanak adierazle gaketzat jo dira Aginte Koadro Integralean (AKI), eta plangintza estrategikoko eta kudeaketako prozesu strategikotik kudeatzen dira.

Beraz, kontu estrategikoa da EGEaren politikarekin jarraitzea, eta, lan horretan, gure interes-taldeek laguntza eta jarrera ona ditugu: benetan eskertzen diegu beren ekarpena.



Izpta.: Juan Carlos Zuloaga

ELIKA Fundazioko zuzendari gerentea

B. 2014. URTEAREN LABURPENA

2014. urtean, ELIKAk 2013-2016 aldirako definitutako estrategia finkatzea eta bultzatzea lortu du. Txosten honen aurkezpenean aipatuenez, erakundearen kudeaketaren bikaintasuna lortzeko helburu estrategikoak eragina izan du: kudeaketaren bikaintasunaren arloan, Zilarrezko Q-aren aitortzea lortu da. Halaber, gainerako helburu estrategikoetan aurrera egin da, premisa honekin: gure jarduerak geure interes-taldeetara bideratzea, balioa emanez gure produktu eta zerbitzuen bidez.

Jarduera-esparru horretan, 2014. urtean ELIKAk aurrera egin du Elikakatearen Kontrol Plana (PNCOCA 2011-2015) bultzatzeko laguntza teknikoak ematen, koordinazio handiarekin esku hartzen duten administrazioen artean. Lan horrek aitortzea eta oso balorazio ona ditu esplizituki, bai arduradun politikoen eskutik, bai administrazio eskudunetako teknikarien eskutik.

Beste alde batetik, aurreko memorietan esaten zenez, **Arriskuen Ebaluazioa da, oraindik ere (eta ezin zitekeen bestela izan), funtsezko lanabesa Elikagaien Segurtasunaren kudeatzaileentzat**; izan ere, gai da aholkularitza zientifiko independente onena eta eguneratuena emateko, eta horrek bidea ematen die Elikagaien Segurtasunaren arloan ekimenak abiarazteko.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagaien Segurtasunaren arloko Zientzia Batzordeak, 2014an, Elikaren laguntza teknikoarekin, deposizio atmosferikoak lurzoruan eragindako kutsaduraren arriskua ebaluatu du. 2011ko, 2012ko eta 2013ko kanpainen interes bereziko eremuetan (Laudio eta Goierri) hartutako laginei dagokienez, lurzoruaz eta landarediaz ari garela, adierazten dute ez dagoela kutsadurarik; beraz, ez dago arriskurik esposiziopean egon daitezkeen kontsumitzaile edo animalientzat. Halaber, Batzorde horrek lanean jarraitu du honako hauekin lotutako ikerketa-proiektuetan lortu den informazioa eguneratzeko: mikotoxinak laboreetan, fitosanitarioak landareetan, nitratoak zerbetan, akrilamida patatetan eta zenbait zoonosi.

Horrez gain, ELIKAk, Zaintza Teknologikoko arlotik, EFSAk (Elikagaien Segurtasunaren arloko Europako Agintaritza) eta Elikagaien Segurtasunaren arloko nazioarteko agentziek argitaratzen duten informazio zientifiko guztia hartzen du, eta gure interes-taldearen eskura jarri, gure argitalpenen bidez.

Estatuan, kontu garrantzitsu gisa aipatu behar da indarrean hasi dela, 2014ko abenduaren 13an aldi baterako indarraldia amaitu ondoren, **1169/2011 Araudia (EB)**, Kontsumitzaileari Elikagaiei buruz ematen zaion Informazioari buruzkoa. 2014an hainbat galdera eta zalantza jaso dira horren inguruan ELIKAn, hala zuzenean telefonoz nola ELIKAK ERANTZUTEN DU *online* zerbitzuaren bidez. Zalantza horiek elikakateko operatzaileen sektore pribatutik eta herri-administrazioetatik etorri dira.

Bestela, esan dezakegu 2014. urtea ez dela oso arazotsua izan elikagaien segurtasunaren alertei dagokienez. Gure autonomia-erkidegoan alerta bakar bat aipatu behar dugu: antxoan Anisakis kopuru handia aurkitu zen, eta gizakietan parasitosiaren zenbait kasu kliniko eragin zituen horrek. Agintaritza eskudunak parasitosi hori saihesteko kuzinatze-ohitura egokiak azaldu zizkien herritarrei.

C. MEMORIA EGITEKO METODOA

Oraingoan gizarte- eta enpresa-erantzukizunaren laugarren memoria aurkeztu dugu, 2014. urteari dagokiona.

Txosten hau iraunkortasun-memoriak egiteko GRIk ezarritako G3.1 gidari jarraikiz prestatu da, B ezarpen-mailarako, eta kanpoko organismo independenteek ez dute egiaztatu.

Memoriaren edukiak definitzeko, aintzat hartu ditugu interes-taldeen lehentasunak; izan ere, zerbitzu publikoko bokazioa duen proiektua gara, oso balio zehatzak dituena gizarte- eta enpresa-erantzukizunaren baitan.

Azken urteotan sortutako printzipio eta errealitate horiek guztiak oinarri hartuta, memoria honetan denbora horretan eginiko jarduera guztiak jasotzeko konpromisoa dugu.

Dokumentu honetan jasotako metodoaren eta informazioaren helburua da ELIKaren jardueraren berri ematea eta jarduera hori argitu eta hurbiltzea, bere interes-talde guztiei begira.

Azaltzen diren adierazle edo ratio guztiak gure ohiko kudeaketa-tresnetatik lortu dira: prozesuen kudeaketa (BIKAIN), kontuen urteko ikuskaritzak, Agintaritza Koadro Integrala, plan estrategikoa, kudeaketa-plana, etab.

1) ELIKA FUNDAZIOAREN IZAERA

Elika Fundazio Publikoa da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitakoa, eta EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun maila al bait handiena izatea du helburu.

Fundazioa 2001. urtean eratu zen, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezinbestekoak diren jarduerak, ikerketak eta esperientziak sustatzeko, egituratzeko eta aholkularitza emateko. Garai hartan, sendotu egin ziren nekazaritzako elikagaien enpresei Elikagaien Segurtasunaren arloan eskatzen zaizkien eginbeharrak eta eskakizunak.

Inguruabar horiek Elikagaien Segurtasunaren arloko erreferente bihurtu dute ELIKA; izan ere, kudeaketaren arloan bikaintasun-ereduak ditu, ezagutza eta esperientzia ditu, eta ingurunera eta erakundearen aldaketetara egokitzen jakin du, bere lana garatzeari eta interes-taldeei informazioa emateari utzi gabe.

13 urte norabide berean, xede berarekin: EAEn nekazaritzako elikagaien segurtasun mailarik handiena lortzea.

a. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOKO POLITIKA

Zerbitzuak eskaintzeko xedez jaiotako fundazio publikoa gara; beraz, gure helburua da hasierako xede horiek betetzea eta EAEko elikagaien segurtasuna hobetzeko lan egitea. Baina, horiez gain, baditugu beste helburu batzuk ere: zorrotzagoak izatea gure erantzukizun sozialarekin, balioa ematea gizarteak gure erakundean inbertitzen dituen bitartekoei, eta, hori betetzeko, etikaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik arduratsuak diren jarrerak izatea.

2013-2016 aldirako Plan Estrategikoarekin bat etorriz, ezagutzera eman nahi ditugu gure interes-talde guztiak. Halaber, erakutsi nahi dugu ahalegin sendoena eta irmoena egiten dugula ELIKA erakunde bikaina, lehiakorragoa, solidarioagoa, gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituagoa eta eskuragarriagoa izan dadin.

Hau da gure mapa estrategikoa:

IKUSPEGIA	Nekazaritzako elikagaien sektorea eta euskal administrazioa Europako elikagaien segurtasunaren esparrura egokitzeko tresna giltzarri gisa aintzatetsia izatea, eta era berean gizarteari balioa ematea bere jarduera eta kudeaketa bikainaren bidez.					
HELBURU ESTRATEGIKOAK	Lortzea gure interes-taldeek Elikagaien Segurtasunaren arloko erreferente gisa aitortzea ELIKA; orobat,	Tresna gakoa izatea EAEko Elikagaien Segurtasunaren arloko politika definitzeko eta zabaltzen	Administrazioei eta Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketazentroi aholkularitza zientifiko eta	Elikakatearen langileek eta administrazioek elikagaien segurtasunaren baldintzak ezagutzea eta ELIKAK	ELIKA elikagaien segurtasunaren arloan zabaltzeko eta komunikatzeko eredu gisa sendotzea	Erakundearen kudeaketa bikaina gauzatzea: korporatiboa, pertsonena, ekonomikoa eta soziala

	erakundeen babesa izatea	laguntzeko	teknikorik onena ematea, elikagaien arriskuak kudeatzeko eta jakinarazteko erabakiak hartzeko	eskaintzen dituen zerbitzuen bidez baldintza horiek ezartzeko erraztasunak ematea		
PROZESUAK	PROZESU ESTRATEGIKOAK		PROZESU OPERATIBOAK		BABES PROZESUAK	
	Plangintza estrategikoa eta kudeaketarena Prozesuak eta Berrikuntza Pertsonak		Elikagaien Segurtasun Globala Zaintza Teknologikoa Ikerketa Elikagaien Arriskua Elikakatea Komunikazioa		Aurrekontuen eta administrazioaren kudeaketa Hornitzaileak eta baliabideak	

b. GOBERNU ORGANOA

PATRONATUA

Patronatua da ELIKAren gobernuko, administrazioeko eta ordezkartzeko organo gorena. Organo horrek mendean ditu fundazioaren kudeaketaren zuzendaritzatik eta kontroletik eratorritako aginte guztiak, fundazioak ezarritako helburu guztiak betearazteko beharrezkoak direnak. Honako hau izan da Patronatuaren osaera 2012ko abendura arte:

PRESIDENTEA	Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila		
PRESIDENTEORDEA	Peli Manterola Berrikuntzaren eta Elikagaien Industrien zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila		
IDAZKARIA	Rogelio Pozo AZTI-Tecnaliako zuzendaria. Azti-Tecnalia		
KIDEAK	Asier Arrese Zuzendari gerentea Fundación HAZI Fundazioa	Miren Dorronsorro Osasun Publikoa eta Adikzioak arloko zuzendaria Osasun Saila	Elena Unzueta Kontsumobideko zuzendaria Osasun Saila
	Josu Ezkurdia NEIKER-Tecnaliako zuzendaria. Neiker-Tecnalia	Leandro Azkue Arrantza eta Akuikultura zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila	
	Ane Urkiola Aurrekontuen arloko zuzendaria Ogasun eta Finantza Saila	Eduardo Aguinaco Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko zuzendaria Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila	

c. ALIANTZAK ETA INTERES TALDEAK

BEZEROAK: gure ardatz nagusia dira, eta jarduerari buruzko informazio- eta gardentasun-harreman jaria korra dugu; izan ere, bezeroak ez ezik, Fundazioaren traktore ere badira, ELIKArean Patronatua osatzen baitute.

ELIKArean INTERES TALDEAK			
Bezeroak	Nekazaritzako elikagaien sektorea	Nekazaritzako elikagaien kateko langileak	Elkarateak, sindikatuak, elikagaien industriak, nekazaritza-ustiategiak, abeltzaintza-ustiategiak, pentsu-fabrikak, kooperatibak, arrantzaleen kofradiak, etab.
	Administrazioa	Administrazioko kudeatzaile politiko eta teknikoak	Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saila; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza; Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren arloko Zuzendaritza; Arrantza eta Akuikulturako Zuzendaritza; Kalitate eta Elikagaien Industriako Zuzendaritza; Landa-garapeneko eta Elikadura Politikako Zuzendaritza
	Kontsumitzaileak	Kontsumitzaileen elkarateak	EKA-OCUV, EKE, EZE, ELIKALTE, etab.
Beste administrazio batzuk	Administrazioko kudeatzaile politiko eta teknikoak	Kontsumobide; udalak; Osasun Publikoko Zuzendaritza; Ingurumenaren Administrazio Zuzendaritza; FFAA	
Patronatua	ELIKAko patronatua	Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak eta bazkide fundatzaileak	
Pertsonak	ELIKAko Gerentzia eta teknikariak	ELIKAko kideak	
Kanpoko laguntzaileak	Teknologia-zentroak	Teknologia-zentroak (AZTI, Neiker...)	
	Unibertsitateak	Farmazia Fakultatea eta Gizartearen eta Komunikazio Zientzien Fakultatea; Mondragon Unibertsitatea; Plentziako Itsas Estazioa	
	Sozietateak/Fundazioak	Ihobe, Hazi	
	Sareak	Euskalit, Q-EPEA, Foarse	
	Tresnak	Zientzia Batzordea	
Eskumena	Estatukoa	AECOSAN, ACSA	

	Europakoa	EFSA, AFSSA, FSA, etab.
Aliatuak	Erakundeetakoak; sektoreetakoak; sare pertsoneak; etab.	Aliatuen zerrenda-taula
Hornitzaileak	Hornitzaileak	IFH, DRA; Grupo Vadillo, Veiss, Hazi Consultoría, etab.
Komunikabideak	Prentsa idatzia eta digitala, gizarte-sareak, irratiak	<i>El Correo, Deia, Berria, Gara, Radio Vitoria,</i> Facebook, Twitter, LinkedIn, etab.
Gizartea (Euskadi)	Gizartea oro har	Herritarrak oro har
		Ikastetxeak, ospitaleak, gainerako unibertsitateak
		Beste elkarte batzuk (Elikagaien Bankua, Cáritas...)
		Arkaute ingurua (auzoa)

Gure interes-talde nagusiak administrazioak, elikagaiak ekoizteko kateko operatzaileak eta sektoreko agenteak dira, baita kontsumitzaileen elkarteak ere.

Pertsonak: ELIKAREN balio garrantzitsuena dira; izan ere, gure oinarria ezagutza da. Ildo horretatik, garrantzi berezia dute zerbitzu eta pertsonen garapena errazten duten prestakuntzak, motibazioak eta lan-inguruak.

GIZARTEA: egiten dugun lana elikagaien segurtasunaren inguruko interesa duten kontsumitzaileei begira antolatuta dagoenez, uste dugu gizartea oinarritzko zutabea dela Fundazioaren jarduerarako. Hori dela eta, kezka handienak sortzen dituzten gaiak aztertu eta modu dibulgetzailean lantzen ditugu, kontsumitzaileengana iristeko, elikagaien segurtasunari buruzko informazioarekin.

d. LAN ARLOAK

ELIKAK ematen dituen produktu eta zerbitzuak honako lan-arlo hauetan antolatzen dira:

- Arriskuen analisia: helburu nagusia da euskal elikakatean sor daitezkeen arriskuei buruzko ezagutza ahalik eta zabalena lortzea. Horrela, administrazioari zientzia-oinarria eman dakioke Elikagaien Segurtasuna handitzera bideratutako politikak sortzean.

- Elikakatea: helburu nagusia da lehenengo sektoreko, animalien elikaduraren industriako eta elikagaien industriako elikagaien segurtasuna hobetzeko lagungarri diren ekintzak sustatzea eta egitea. Horretarako, proiektuak sortu eta prestakuntza-ikastaroak antolatzen eta ematen dira.
- Kontsumitzailea: kontsumitzaileak elikagaien segurtasunaren esparruan hezteko ekintzak bultzatzen dira. Bestalde, elikagaien bidezko balizko intoxikazioak murrizteko lagungarri diren higiene-ohiturak sortzen dira etxean.
- Zaintza teknologikoa: helburua da informazio eguneratu eta interesgarria detektatzea, Elikagaien Segurtasunaren arloan ezagutza sortzea bultzatzeko. Horretarako, hainbat bide eta iturri erabiltzen dira.
- Ikerketa: ELIKAK parte-hartze aktiboa du Elikagaien Segurtasunaren arloan eskumenak dituzten Europako agentzia eta organismo nagusien sare eta plataformetan.
- Aholkularitza teknikoa: helburua da herri-administrazioei laguntzea, idazkaritza teknikoen bidez, sailen eta erakundeen arteko koordinazio-lanetan, elikagaien segurtasunaren arloan indarrean dauden planetarako.

2) KULTURA ESTRATEGIKOA

a. ELIKAREN ZEREGINA

ELIKA Eusko Jurlaritzak sustatzen duen fundazioa da, eta xedea da Euskadiko Elikagaien Segurtasuna hobetzen laguntzea, baliabideak modu eraginkorrean, erabatekoan eta gizartean modu arduratsuan kudeatuz.

Horretarako, Elikak:

Aholkuak ematen dizkie administrazioei, elikakateko langileei eta kontsumitzaileei elikagaien segurtasunaren arloan.

Arriskuen ebaluazioa, kudeaketa eta komunikazioa sustatzen du administrazioekin batera eta modu integratuan.

Lankidetzeta eta koordinazioa sustatzen du herri-administrazioen, unibertsitateen, ikerketa-zentroen, ekoizpen-sektoreen eta kontsumitzaileen elkartean artean.

Informazioa zabaltzen du eta prestakuntza-programak antolatzen ditu elikagaien segurtasunaren arloan.

b. ELIKAREN IKUSPEGIA

ELIKAREN helburua da aitortpena lortzea nekazaritzako elikagaien sektorea eta euskal administrazioa Europako elikagaien segurtasunaren esparrura egokitzeko tresna giltzarri gisa, eta, era berean, gizarteari balioa ematea bere jardueraren eta kudeaketa bikainaren bidez.

c. ELIKAREN BALOREAK

Balorea	DEFINIZIOA
PROFESIONALITASUNA	Balioa eranstean duten zerbitzuak eta proiektuak lortzeko egingo dugu lan, eta eskaintzen ditugun jardueretan kalitatea eta erabilgarritasuna izango dira oinarritzko elementu. Horretarako, beharrezko esperientzia eta ezagutzak izango dituzte langileek.

ELKARLANA	Gure interes-taldeak inplikaturako ditugu gure eginkizun eta ikuskeran, horiek baitira prozesua errazten dutenak. Horretarako, parte-hartzea babestu, sustatu eta aitortu egingo dugu.
KONPROMISOA	Erakundearen xedeak geure egingo ditugu, eta langileak xede horiek lortzera bideratuko ditugu.
PARTEKATZEA	Ezagutza eta sortzen dugun informazioa hedatuko dugu gure interes-taldeen artean, eta garden jokatu dugu erakundearen kudeaketan eta prozesuetan.
EGOKIGARRITASUNA	Gai izango gara herri-administrazioek eta gainerako interes-taldeen elikagaien segurtasunari buruz egiten dituzten eskaeretara egokitzeke.

d. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Hauek dira ELIKAREN helburu estrategikoak:

- 1.- Tresna gakoa izatea honako hauek lortzeko:
 - a) Elikagaien Segurtasunaren arloko politika definitzea EAEn
 - b) laguntza ematea horren zabalkundean
- 2.- Administrazioei eta Elikagaien Segurtasunaren arloko ikerketa-zentroei aholkularitza zientifiko eta teknikorik onena ematea, elikagaien arriskuak kudeatzeko eta jakinarazteko erabakiak hartzeko.
- 3.- Elikakatearen langileek eta administrazioek elikagaien segurtasunaren baldintzak ezagutzea eta ELIKAK eskaintzen dituen zerbitzuen bidez baldintza horiek ezartzeko erraztasunak ematea sustatzea.
- 4.- ELIKA elikagaien segurtasunaren arloan zabaltzeko eta komunikatzeko eredu gisa sendotzea.
- 5.- Lortzea gure interes-taldeen Elikagaien Segurtasunaren arloko erreferente gisa aitortzea ELIKA; orobat, erakundearen babesa izatea.
- 6.- Erakundearen kudeaketa bikaina gauzatzea:
 - korporatiboa
 - pertsonena
 - ekonomikoa
 - soziala

2014an lortutakoen erakusgarri dira honako hauek:

- ✓ Erakundearen zeharkakotasuna. Harremanak: Saila / erakundeak.
 - Aholkularitza eta euskarri teknikoa eman zaie, bai zuzenean, bai zeharkako idazkaritza teknikoen bidez, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sailari dagozkion zuzendaritzei (Nekazaritza, Arrantza, Kalitatea eta Elikagaien Industriak).
 - Babes teknikoa eman da kontrol-planak diseinatzeko eta bultzatzeko, Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalarren esparruan, foru-aldundiekin koordinazio-lan handia eginda.
 - Babes teknikoa eta lidergoa arriskuen komunikazio-sistema bat diseinatzeko, koordinaturik eta administrazio eta erakunde eskudunen arteko lankidetzarekin.

- ✓ Komunikazioa eta informazioa indartzea:
 - Teknologia-zaintzaren eta inteligentzia lehiakorraren sistema berritu da (ISO 166.006)
 - Webguneari HONcode bereizgarria eman diote.
 - 31 artikulua/berezi, kontsumitzailearentzako materiala eta infografiak egin dira.
 - 2014an 320 albiste argitaratu ziren webgunean

- ✓ Gizarteko ospea hobetzea - Aitorpenak: 22 aitorpen:
 - Oso orrialde betea eta interesgarria. Eredua da elikagaien segurtasunaren arloan.
 - Nire zorionik beroenak jardunaldiaren antolakuntzagatik eta aurkezpenengatik, eta zuen webgunearen bidez ere ezagutza transferitzeko egiten duzuen lan handiagatik.
 - Webgunean duzuen informazioa oso lagungarri zait; informazio asko du, eta oso ona. Sarri kontsultatzen dut.
 - Elikaren webguneko informazioa oso interesgarria da, eta berriak oso kalitate handikoak dira. Nabarmentzekoa da egunero eguneratzen dela.
 - Eskerrik asko!!! Oso lan ona!! Oso ondo geratu zaizue!!! Zorionak!!

3) DIMENTSIO EKONOMIKOA

a. BALIOA HANDITZEA

ELIKAn jarduera eta zerbitzuen balioa handitzeko konpromiso sendoa dugu. Horrela, gure interes-taldeei, eta bereziki gizarteari, itzuli egingo dizkiegu ematen dizkiguten baliabideak.

Erabateko gardentasunez lan egiten saiatzen gara, jendearen eskura jarrita fundazioaren datu ekonomiko ikuskatu guztiak. Gainera, lan-gai ditugun baliabideak eraginkortasunez kudeatzeko, horiek kontrolatzea eta etekin handiena lortzea ahalbidetzen diguten tresnak erabiltzen ditugu.

Hori helburu, 2012. urtean ELIKAn martxan jarri genuen BIKAIN kudeaketa-tresna, hau da, baliabideen, pertsonen eta zerbitzuen kudeatzailea. 2014an ere bide horretatik jarraitu dugu, tresna hori behin betiko ezarri baitugu.

BIKAINi esker, planifikazio estrategikoa, urteko kudeaketa eta hileko kudeaketa integra ditzakegu. Gainera, proiektuen eta horietara bideratutako baliabide guztien garapena kontrola dezakegu.

ELIKAren jarduera-esparrua Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikorako Bulegoak ezarritako betekizunekin osatzen da. Horiek guztiak "Gobernu arduratsuen gida"-n eta "Barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua"-n daude ezarrita.

Aipatzeko moduko datua da iaz informazio-gardentasun sendoagoa lortu genuela. Aurten ere gardentasuna areagotzen jarraitu dugu, eta gure interes-taldeei jakinarazi diegu garden jokatuko dugula ekonomiaren, kudeaketaren eta egindako proiektu eta zerbitzuen inguruko datuekin. Egindako proiektu guzti-guztiei buruzko informazioa eman dugu www.elika.net webgunean.

Q-EPEA (Bikaintasunaren aldeko Erakunde Publikoak) taldeko kide gara, eta aurten Herri Administrazioen Kudeaketa Bikaintasunaren V. Biltzarra antolatzen aritu gara (maiatzean izan zen).

b. BALANTZEA ETA EMAITZEN KONTUA

ELIKAko kudeaketa-taldeak Jardueren Plana aurkezten du urtero, eta Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna Sailak aurrekontua ematen dio. 2014ko aurrekontua 633.997,72 €-koa izan da.

Bada, aurrekontu horrekin gauzatzen dira Patronatuak onetsitako Urteko Kudeaketa Planean aurreikusitako jarduerak. ELIKA fundazio gordina da, eta gastuaren jarraipen

ekonomikoa (Eusko Jaurlaritzari helarazten zaiona) egiten du. Gainera, datu ekonomiko guztiak bere webgunearen bidez argitaratzen ditu, eta urtero ikuskaritza independente bat egiten zaio.

AKTIBOA	Oharrak	2014/12/31	2013/12/31
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		8.984	19.566
I.- Ibilgetu ukiezina	5	<u>6.025</u>	<u>14.058</u>
Informatika-aplikazioak		6.025	14.058
III.- Ibilgetu materiala	6	<u>2.959</u>	<u>5.508</u>
Instalazio teknikoak eta bestelako material ibilgetua		2.959	5.508
		-	-
		-	-
B) AKTIBO ARRUNTA		293.603	255.585
IV.- Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	8	<u>52.986</u>	<u>81.761</u>
Zenbait zordun		0	19.100
Aktiboak, zerga arrunta dela eta	10.1	22.986	32.661
Fundatzaileak, eskatutako ordainketengatik		30.000	30.000
VI.- Epe motzerako diru-inbertsioak	8	<u>0</u>	<u>581</u>
Bestelako finantza-aktiboak		0	581
VIII.- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		<u>240.617</u>	<u>173.243</u>
Diruzaintza		240.617	173.243
AKTIBOA GUZTIRA		302.587	275.151

ONDARE OSOA ETA PASIBOA	Oharrak	2014/12/31	2013/12/31
A) ONDARE GARBIA		221.651	225.997
A-1) Funts propioak	9	221.651	225.997
I.- Zuzkidura fundazionala		<u>486.668</u>	<u>486.668</u>
II.- Erreserbak		<u>6.800</u>	<u>6.800</u>
Legezkoa		711	711
Beste erreserba batzuk		6.089	6.089
III.- Aurreko ekitaldietako soberakinak		<u>(267.471)</u>	<u>(263.956)</u>
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak		(267.471)	(263.956)
IV.- Ekitaldiko soberakinak		<u>(4.346)</u>	<u>(3.515)</u>
-		-	-
B) PASIBO EZ ARRUNTA		20.000	0
II.- Epe luzerako zorrak	8	<u>20.000</u>	<u>0</u>
Bestelako finantza-pasiboak		20.000	0
-		-	-
C) PASIBO ARRUNTA		60.936	49.154
III.- Epe laburrerako zorrak	8	<u>21.167</u>	<u>621</u>
Kreditu-erakundeekin dauden zorrak		1.167	621
Bestelako finantza-pasiboak		20.000	0
IV.- Taldeko enprekin eta epe motzerako elkartutakoekin dauden zorrak	8	<u>8.490</u>	<u>10.290</u>
VI.- Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	8	<u>31.279</u>	<u>38.243</u>
Hornitzaileak		8.477	11.645
Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak)		0	65
Aktiboak, zerga arrunta dela eta	10.1	22.802	26.533
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		302.587	275.151

4) GIZARTE DIMENTSIOA

a. GIZATALDEA

Pertsonak dira ELIKaren politikaren ardatz nagusia. Beraz, familiako eta laneko bizimodua bateratzea, aukera-berdintasuna, hazkunde profesionala eta laneko segurtasuna eta osasuna oinarritzko ardatzak dira pertsonen kudeaketan.

ELIKako gizataldea diziplina anitzekoa da; zehazki, askotariko adarretako zortzi profesionalak osatzen dute (elikagaien teknologoen, biologoen, albaitariak). Guztiek dute esperientzia Elikagaien Segurtasunaren alorrean, elikakateko katebegietan.

Arrisku Ebaluazioaren arduraduna	Amaia de Ariño
Animalien Elikaduraren arduraduna	Antton Alza
ELIKako zuzendaria	Juan Carlos Zuloaga
Elikagaien Industriako arduraduna	Edurne Gantxegi
Abeltzaintzako arduraduna	Eztiñe Ormaetxea
Zaintza Teknologikoko arduraduna	Gontzal Mugaburu
Nekazaritzako arduraduna	Isabel Martínez
Ikerkuntzako arduraduna	Monica de Prado

Fundazioko pertsonen kudeaketari buruzko informazioa emate aldera, langileei, azken urtean eginiko prestakuntza-saierei eta langileen gastuei buruzko datuak erantsi ditugu.

ADINA	35 eta 50 urte artean	7
	50 eta 55 urte artean	1
GENEROA	Gizonak	3
	Emakumeak	5
IKASKETA MAILA	Goi-mailako tituludunak	8
LANBIDE KATEGORIA	Zuzendaritza	1
	Teknikariak	7
	Administrariak	0
ANTZINATASUNA	Antzintasun handiena	13 urte
	Batez bestekoa	9 urte
KONTRATU MOTA	Mugagabeak	% 100
	Aldi baterakoak	0
PLANTILLAREN	Altak	0
TXANDAKATZEA	Bajak	0

ELIKAn konpromiso sendoa dugu langileekin. Lan-konpromisoa ez ezik, gizarte-konpromisoa ere badugu. Une oro saiatzen gara horien asebetetze-maila handitzen, proiektu berritzaileak dinamizatuz eta bilatuz, eta enpresan prestakuntza sustatuz.

PRESTAKUNTZA	2012	2013	2014
Prestakuntza jasotzen duten langileen %	100	100	85
Prestakuntza-orduak guztira	290,5	487	285,5
Pertsona bakoitzak jasotzen dituen prestakuntza-orduak	41,5	69,5	47,58
Prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko balorazio globala (100etik)	% 78	77,2	84,2

ELIKako langileen lan-baldintzak urtero zehazten dira, berezko Hitzarmen Kolektiboaren bidez. Langile guztiak daude horren menpe. Hitzarmen hori automatikoki eguneratzen da urtero, alderdietako batek behar bezala salatzen duenean salbu.

LANGILEEN GASTUAK	2012	2013	2014
ELIKako langileen gastuak	419.169,77	421.829,45	425.040,22
Gastu osoaren gaineko %	% 57	% 64,5	% 67

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LANGILEAK	2012	2013	2014
Laneko arriskuen inguruko prebentzioan oinarritzko prestakuntza duten langileen %	15	15	30
Soldata-masari dagokionez segurtasunean eta osasunean egiten den inbertsioa	1262 € langileko	450 € langileko	385 € langileko

ELIKA Fundazioak ondoren erakusten den Kode Etikoa du. Bertan, balioak sustatzen dira lanean pertsonen arteko harremanetan, komunikazioan, informazioaren zabalkundeetan eta interes-taldeekin dauden harremanetan.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK	LANEKO ESKUBIDEAK	PERTSONAK	GIZARTEA
Berdintasuna eta diskriminaziorik eza Langileen duintasuna	Negoiazio kolektiborako eskubidea izatea Onura sozialak etengabe hobetzea Familiako eta laneko bizitza bateratzea	Prestakuntza sustatzea eta diskriminazioa saihestea	Ingurumenean laguntzea, garatzen ditugun jarduerak eta informazioen bidez

OSASUNAREN ETA INGURUMENAREN SEGURTASUNA	BERRIKUNTZA	GOBERNU ONA
Langileen segurtasuna zaintzea Garapen iraunkorraren alde egitea Ingurumenarekin konprometituriko hornitzaileekin lan egitea	Lan-ingurune sormenezkoa eta motibagarria Balio erantsi handiko zerbitzu eta produktuak	Edozein motatako ustelkeriari uko egitea Informazioaren gardentasuna Baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatzea

